

Errolda historiala eskatu - Informazio orokorra

▪ Zertarako

Biztanleen Udal Erroldan izandako aldakuntzak edo historiala lortzea, Udal Erroldan egun jasota dagoenaren arabera.

▪ Errolda historiala nola eskuratu? 2 aukera dituzu:

a) Tramitazio telematikoa (Internet bidez historiala eskuratu)

[Egin klik hemen.](#)

b) Tramitazio presentziala (Udaletxera hurbildu historiala lortzeko):

▪ Ekarki behar diren agiriak:

- ▶ Interesduna edo familia unitate bereko kidea etortzen bada:
 - NA, indarrean dagoen pasaportearen edo horren ordezkoko nortasun agiria edo, bestela, egoitza-baimena (jatorrizkoa)
- ▶ Beste inor agertuz gero:
 - Bertaratutako lagunaren NA (jatorrizkoa)
 - Interesatuaren NA (jatorrizkoa) edo baimen-agiria. Baita interesatuaren NAREN fotokopia ere.

Unitate arduradunak eskubidea du beste dokumentu osagarriren bat eskatzeko, izapidea behar bezala bete ahal izateko.

▪ Lege-Arautegia

Urtarrilaren 10eko 4/1996 Legea, apirilaren 2ko 7/1985 Legea (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena) aldatzen duena, Udal Erroldari dagokion atalean.

Abenduaren 20ko 2612/1996 Dekretua, uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretu bidez onetsitako Toki Erakundearen Biztanleriaren eta Lurralde Mugaketaren Erregelamendua aldatzen duena.